



Arartekoaren ebazpena, uztailaren 4koa. Horren bidez, Ortuellako Udalari gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola.

Aurrekariak

1. Pertsona batek erakunde honetara jo du eta adierazi du bere semearen neska-lagunari Ortuellako Udaleko erroldan izena ematea ukatu zaiola. Pertsona horrek, emaztearekin batera, udal etxebizitza bat du errentan hartuta, babes ofizialeko erregimenean. Beren (...) seme-alabak beraiekin bizi dira. Horietako bat laster aita izango zela eta, bere neska-laguna ere, (...), beraiekin bizitzera ekarri zuten. Bikotea ijito errituari jarraiki dago ezkontuta.
2. Erroldatzeko eskaera 2007ko (...)an aurkeztu zen. Udalak honakoa erantzun zuen: *“(...)ko zure idazkiari erantzunez (horren bidez, (...), dagoen udal alokairuko etxebizitzan erroldatu ahal izatea eskatu zen), alokairuaren titularrek sinatutako konpromisoaren kopia bidaltzen dizut, jakinaren gainean egon zaitezten eta dagozkion ondorioetarako”.*

Kexa hau behar bezala izapidetzeko xedez, erakunde honek gertakari horiei buruzko informazioa eskatu zion Udalari. Gainera, aurretik zenbait gogoeta ere helarazi genizkion pertsona benetan udalerrian bizi denean udalak hura erroldatzeko duen betebeharraren inguruan. Bere erantzunean, Udalak espedientea helarazi du eta bertan berariaz adierazi du erroldatzea ukatu izanari buruzko espedientearen kopia bidali digula. Espedientean ondorengo agiriak biltzen dira: 2007ko (...)an egindako erroldatzeko eskaera, horri emandako erantzuna, gizarte etxebizitzaren errentamendu kontratua, 1997ko ekainaren 11n sinatua, eta alokairuko etxebizitza adjudikatzerakoan (...)k eta (...)k egindako adierazpena. Honen bidez hitzeman zuten etxebizitzan ez zutela beren gurasoak edo seme-alabak ez beste seniderik erroldatuko edo horien erroldatzea baimenduko, gizarte etxebizitzaren errentamendu kontratuarekin bat etorriz.

3. 2008ko apirilaren 30ean (...)ren semea jaio zen. Une honetan, haurra eta ama aitarekin bizi dira, familiaren egoitzan, aiton-amonekin. Semea udalerrian erroldatuta dago, aipatu bizilekuan, baina ama ez.





Gogoetak

1. Erakunde honek hainbatetan hitz egin du benetan udalerrian bizi diren pertsonei erroldan izena emateko betebeharrak. Erroldan izena ematea oinarritzko eskubideei lotuta dago, horien artean, joan-etorri askerako eskubideari, auzotarren partaidetzarako eskubideari eta politikan parte hartzeko eskubideari, hautesle erroldarekin duen erlazioagatik. Gizarte eskubideei ere eragiten die, horien artean, osasunerako eskubideari, hezkuntzarako eskubideari edo gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubideari. Hori dela eta, inori bizilekua duen udalerriko erroldan izena ematea ukatzeak garrantzi berezia hartzen du. Horregatik, lege araubidea aztertu behar da.
2. Arlo honen inguruko lege araubideak berezi egiten ditu erroldan izena ematea eta etxebizitza okupatzearen legezkotasunari buruz iritzia ematea. Udal erroldan izena ematea araupetzen duen araudiak ez du baldintzatzen erroldan izena ematea higiezina betetzeko legezko titulu bat lortzean edo hirigintzako plangintzako arauak betetzean. Arlo honetan garrantzitsua da Estatistikako Institutu Nazionalak emandako jarraibideak aipatzea, horien edukitik nahikoa argi geratzen baita zeintzuk diren udal erroldaren izaera eta xedea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 17. artikulua Estatistikako Institutu Nazionalari eskumena ematen dio egiaztapen egokiak burutzeko eta estatu mailan erroldako datuek biztanleriaren estatistikak egiteko oinarri bezala balio dezaten beharrezkoak diren jarduerak eta lanak udalei jakinarazteko. Urteko berrikusketen ondoriozko kopuruak ofizialak izan daitezten eta udalek hautesle erroldako datuak, behar bezala eguneratutakoak, igorri ahal izan ditzaten. Halaber, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariaren esku uzten du erroldatzearen arloan udalen, probintzietako aldundien, irletako kabildoaren eta kontseiluen edo erakunde horien eta Estatistikako Institutu Nazionalaren artean sor daitezkeen desadostasunen ebazpena emateko eskumena.

Erroldatze Kontseilua ere araupetzen du, Ekonomia eta Ogasun Ministeriora atxikitakoa, Estatuko Administrazio Orokorraren eta erroldaren arloko toki erakundearen arteko lankidetzarako kide anitzeko organo bezala. Besteak beste udal erroldak kudeatzeko beharrezkoak diren argibide teknikoak onesteko funtzioa du.





Jarraibide horien artean, lehenengo, udal errolda berrikusteko eta kudeatzeko udalentsako argibide teknikoak ezartzen dituen Ebazpena nabarmendu behar dugu, 1997ko apirilaren 1ekoa, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa (BOE, 1997-04-11koa). Ebazpen horretan ezartzen dira udal erroldan gertatzen diren aldaketak izapidetzeko prozedurari buruzko argibideak, *“herritarrek ohiko bizilekua duten udalerriko erroldan izena emateko eta dagozkien egoitza aldaketen berri emateko dituzten betebeharrak Konstituzioak aintzatesten duen egoitza modu askean aukeratzeko eskubidearekin bateratzeko xedez, eta eraginpeko udalen artean jarduketak koordinatzeko”*. Bigarrenik, udal errolda eguneratzeko udalentsako argibide teknikoak ezartzen dituen Ebazpena, 1997ko uztailaren 4koa, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa (BOE, 2007-07-25ekoa). Araudi hau aplikatu behar dute udalek, izan ere, Estatistikako Institutu Nazionalarekin partekatzen dute eskumena, *“egon daitezkeen hutsak zuzendu eta datuen bikoiztasunak saiheste aldera”* (TAOL, 17. artikulua).

Ebazpen horien edukiak udalak lotzen ditu. Haien izaera juridikoa xedapen orokor batena da, izan ere, arautzeko helburua dute eta hartzaile kopuru mugagabeari zuzenduta daude, hau da, abstrakzio ukitua eta izaera ordenatzailea dute (Auzitegi Goreneko Hirugarren Salaren 1997ko maiatzaren 5eko epaia: *horien ezaugarri bereizgarria ordenamendu juridikoan abstraktuki txertatzeko gaitasuna da, hurrengo askotariko aplikazioen iturri gisa...*”).

Erroldatzea eskatzen duten pertsonen izena emateko, udalak Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiko (BLMA) 57. artikuluan ezarritako datuak bildu behar ditu eta egiazkoak ote diren ziurtatu behar du (BLMA, 59. artikulua): *“Udalak herritarrek emandako datuak egiaztatu ahal izango ditu eta horretarako agiri hauek eskatu ahal izango ditu: nortasun agiri nazionala edo bizileku txartela, familia-liburua, etxebizitza okupatzen ari dela egiaztatzen duen titulua edo antzeko dokumentuak”*.

1997ko uztailaren 4ko Ebazpeneko 3. jarraibidean, aipatu artikulua araberak udalak duen ahalmenaren norainokoa argitzen da. Ebazpen horri jarraiki, erroldaren kudeatzaileak, erroldan adierazten dituen datuak egiaztatzeko ahalmenaz baliatzerakoan, ez du ondoren bidegabetzat edo legez kanpokotzat har daitezkeen inolako jarduerarik baliozkotzen:





“Udalak herritarrari etxebizitzaren okupazioa egiaztatzeko titulua eskatzeak (Araudiaren 59.2 art.) ez du esan nahi toki administrazioek jabetza, hiri errentamendu edo izaera juridiko-pribatuko kontuak epaitzeko eskumena dutenik; horren helburu bakarra herritar hori benetan adierazitako helbidean bizi dela egiaztatzea da.

Horregatik, titulu hori jabetza eskritura edo errentamendu kontratua izan daiteke, baita etxebizitzaren zerbitzu baten hornidura kontratua ere (ura, gasa, elektrizitatea, telefonoa, etab.); gerta daiteke, orobat, halakorik ez izatea ere (kasu hau izango litzateke norberarena ez den jabetza publiko zein pribatu baten titulu gabeko okupazioa). Azken kasu horretan, udal kudeatzaileak beste bitarteko batzuk erabili behar izango ditu herritarra benetan etxebizitza horretan bizi dela egiaztatzeko (udaltzaingoaren txostena, zerbitzuaren inspezioa, etab.) eta, hala bada, udal erroldan izena eman behar izango dio, kontuan hartu gabe jabe legitimoa bere eskubideez baliatzen den agintarien edo auzitegi eskudunen aurrean (horiek ez dira inoiz erroldaren kudeatzaileak izango).

Biztanleren batek bizileku jakin batean alta emateko eskatzen badu eta bizileku horretan jada beste pertsona batzuk erroldatuta badaude, etxebizitzan bizi dela justifikatzen duen agiria ekartzeko eskatu ordez, adinez nagusia den eta bizileku horretan bizi den pertsona baten idatzizko baimena eskatu behar izango zaio”.

Azken batean, udal erroldan izena emateak ez du zerikusirik etxebizitzaren okupazio tituluekin. Era berean, udalak erroldan izena emateko duen betebeharrak ere ez du zerikusirik errentatzaile gisa dituen ahalmenekin. Udalak jasotako datuak egiazkoak diren ala ez diren egiaztatzeko ahalmena du, baina horrek ez du esan nahi legezko tasunari buruzko iritzia eman dezakeenik edo errentatzaile gisa etxebizitza erabiltzea onartzen duenik. Kasu honetan, udal etxebizitzaren jabea den heinean, erroldan izena ematearena ez den legezko beste bitarteko eta tresna batzuk ditu errentatzaile gisa dituen eskubideez baliatzeko.

3. Zerbitzu publikoak planifikatzeko udalerrri bateko benetako biztanleriaren ezaugarriak jakin behar dira. Erroldak udalerrri bateko biztanleria osatzea du helburu (TAOL, 15.2 artikulua). Udalak arduratzen dira errolda egiteaz, eta erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealitatearekin bat etor daitezen (TAOL, 17. artikulua). Abenduaren





20ko 2612/1996 Errege Dekretuak ezarritako uztailaren 11ko 1690/1989 Errege Dekretuak onetsitako Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiko 77. artikulua bete behar hori nola gauzatu behar duten azaltzen du: *“Udal erroldaren eta errealitatearen arteko bat-etortzea lortzeko, udalek laginketak eta kontrolak egin behar izango dituzte sistematikoki eta biztanleek mugikortasun handiagoa izan dezaketen sektoreetan indartu behar izango dira. Aldizka erroldaren benetako egoera egiaztatzeko eta bertan agertzen diren datuak eguneratzeko eremuko lanak egin behar izango dira, arreta berezia jarritz urbanizazio berriak, eraikuntza berriak, eraispinak eta abar egiteko udal baimena eman zaien guneei eta horien emaitzak Estatistikako Institutu Nazionalari jakinaraziz”.*

Araudiak ez du uzten errolda eta udalerrian benetan bizi diren pertsonen errealitatea bat ez etortzea. Egokitzeko alta edo, hala denean, ofiziozko baja agintzeko prozedura hastea aurreikusten da (BLMAko 71, 72 eta 73. artikulua). Halaber dio, erroldan agertzen diren datuak errealitatearekin bat etor daitezen udalak erroldak eguneratuta izateko beharrezko eguneratzea eta lanak egin ezean, Estatistikako Institutu Nazionalak, Erroldatze Kontseiluaren txostenaren ondoren, TAOLren 60. artikuluan aurreikusitako ordeko burutzapenera jo ahal izango duela, egokiak diren errekurtsu juridikozionalen kaltetan izan gabe (BLMA, 62. artikulua). Lege ezarpen horiek guztiek erroldaren xedea betetzeko balio dute, alegia, udalerrian benetan bizi diren biztanleak biltzen dituen erregistroa izateko.

4. Errolda administrazio erregistroa da, udalerrian bizi diren pertsona guztien bizilekua eta inguruabarrak jasotzea bakarrik da bere funtzioa. “Administrazio informazioaren” erregistroa da, helburu gisa administrazio publikoei beren funtzioak modu eraginkorrean garatzea errazteko informazioa ematea duena.

TAOLren 16. artikulua zera dio: *“udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrak. Bertako datuek frogatzen dute udalerrian bizi direla eta bertan dutela ohiko bizilekua. Datu horiekin egiten diren egiaztapenak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira ondorio administratibo guztietarako”.* Hortaz, erregistro horretan izena emateak udalerriko bizilekua eta etxebizitza bakarrik egiaztatzen du. Ez du legez kontrako inolako egoerarik baliozkotzen; aitzitik, errealitate baten berri ematen du, ikusi dugun bezala.

Pertsona hori ez erroldatzeko erabakia arrazoitzeko, Udalak esan du errentamendu kontratuaren titularrek beren gurasoak edo seme-alabak ez beste





pertsonarik erroldatuko ez zutela hitzeman zutela. Adierazpen horrek ezin dezake lege eraginkortasunik izan, erroldatzeko betebeharra lege mailako arau batek ezarritako betebeharra baita. Ez dira pertsonak bizilekuan erroldatzeaz arduratzen direnak; aitzitik, udalak dira udalerrian bizi diren pertsonak erroldatzeko betebeharra dutenak, arlo honi buruzko araudia betez. Bestela esanda, Ortuellako Udala behartuta dago udalerrian bizi diren pertsonen erroldan izena ematera. TAOLren 17.2 artikularen arabera: *“Udalek erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealtatearekin bat etor daitezen”*.

Bestalde, (...)ek eta (...)ek hartutako konpromisoak ez dio Teresa (...)ri eragiten. Horiek ezin dute bizilekuan erroldatzeko baimena emateari edo ez emateari buruzko erabakirik hartu, izena emateko erabakia kasuan kasuko pertsonari dagokion betebeharra baita. Araudiaren arabera, pertsonaren betebeharra da. TAOLren 15. artikulua dioenez: *“Espainian bizi den pertsona oro behartuta dago ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan izena ematera. Hainbat udalerritan bizi denak urtean denbora gehien ematen duen horretan eman behar izango du izena”*. (...) jaunak eta (...) andreak erroldatzea erraz dezakete, etxebizitzan erroldatuta daudenez, erroldan izena emateko nahikoa baita bertan bizi diren pertsonen baimena, lehen esan dugun bezala. Horren haritik, 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenaren arabera: *“Biztanleren batek bizileku jakin batean alta emateko eskatzen badu eta bizileku horretan jada beste pertsona batzuk erroldatuta badaude, etxebizitzan bizi dela justifikatzen duen agiria ekartzeko eskatu ordez, adinez nagusia den eta bizileku horretan bizi den pertsona baten idatzizko baimena eskatu behar izango zaio”*. Arestian aipatu legez, ezarpen horrek izena emateko orrian jasotako datuak egiaztatzeke Udalak duen ahalmenaz dihardu, baina ez du esan nahi bizilekuan erroldatuta dauden pertsonen dutenik etxebizitzan nor erroldatu edo nor ez erroldatu erabakitzeke ahalmena. Alegia, (...) jaunak eta (...) andreak erraina beraiekin bizitzea onar dezakete edo ez, baina ez dute ahalmenik hura erroldatzearen inguruko erabakirik hartzeko. Horren ildotik, garrantzitsua da ohartaraztea, ijitoen kulturarako, familiak oso balio handia duela. Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako EAeko Planean, ijito herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko azterketaren atalean, lehenik eta behin, ijito herriaren bereizgarri gisa, familia ulertzeko modua, familiaren batasuna eta familia barruko laguntza aipatzen dira eta horri buruz esaten da norberaren aberastasuna bezalako beste balio batzuen aurretik jartzen dela. Hortaz, ijitoen artean onartezina da semeari, honen emazteari eta bilobari aterperik ez ematea. Horregatik, ijito herria gutxiengo kultural gisa hartu denez,





beharrezkoa da kontuan izatea, horientzat, familia barruko laguntza beren kulturaren parte dela eta administrazioek, bai Europakoak bai Estatukoak eta baita lurraldekoak ere, nortasun propioa duen gutxiengo kultural gisa onartzeko konpromisoa hartu dutela. Horrela, tresnen artean, Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmeneko 5. artikulua azpimarratu behar dugu. Hitzarmena berretsi duten estatuek (horien artean, Espainiak) gutxiengoek beren kultura garatu ahal izateko beharrezko baldintzak sustatuko dituztela hitzeman dute. Aipatu beharrekoak dira orobat 2005eko irailaren 27ko Diputatuen Kongresuaren ez-legezko proposamena, gobernuari ijito herriaren kultura, historia, nortasuna eta hizkuntza susta ditzala eskatzen diona, eta, gure artean, ijito herriaren egoera eta sustapenari heltzen dien eta udalen eskumenekoak ere badiren jardunak ezartzen dituen EAEko lehen plana onartu zenean Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu zuen konpromisoa.

Laburbilduz, (...) jaunak eta (...) andreak erabaki zezaketen erraina eurekin ez bizitzea eta, beraz, bizilekuan bizi ezean, ez litzateke bidezkoa izango erroldan izena ematea, ez bailegoke benetako bizilekurik. Egoera hori, ordea, onartezina da ijitoen kulturari, famili nukleo berriak beste etxerik ez duen bitartean.

5. Udalak, erroldan izena ematea ukatzerakoan, eragozpenak jarri dizkio (...) andreaki mutil-lagunarekin eta beren semearekin bizitzeko. Arazoa da, une honetan, etxebizitza bat eskuratzea oso zaila dela guztientzat eta, bereziki, gazteentzat. Ziurrenik zailtasun hori ikusita, eta familia barruko laguntzaren garrantzia aintzat hartuta, jarri da bikotea mutilaren gurasoekin bizitzen. Arartekoak *"Gazteentzako etxebizitza politika publikoak"* izeneko txosten berezia egin du eta bertan, hain zuzen ere, gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten arazoak aztertzen dira. Etxebizitza egokia eskuratzeko dauden zailtasunek pilaketak gertatzea edo infraetxeak egotea egiten du. Etxebizitzaren arazoari irtenbidea aurkitzea oso konplexua da eta, horretarako, beharrezkoa da politika publikoak modu koordinatuan garatzea, tartean hainbat administrazio baitaude. Etxebizitza premia biziko ondasuna da eta beharrezkoa da pertsonen hezkuntza, garapen eta sustapenerako. Horregatik, Administrazioari neurri handiagoan esku hartzeko eskatzen zaio, bizitokirik ez izateak dituen kalteei aurre egiteko.
6. Azkenik, Udalak ez du, garaiz eta forman, (...) familiak aurkeztutako erroldatzeko eskaerari erantzuten dion ebazpenik eman. Horren ordez, 2007ko abenduaren 12an, idazkia bidali zuen, baina bertan ez zen jaso administrazio





egintza batek izan behar duen edukia. Idazki hori ez da ebazpena, ez baititu betetzen administrazio egintzak gauzatu eta horien edukia zehazteari dagokionez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 53. artikulua eta hurrengoek ezartzen dituzten eskakizunak. Horregatik, komenigarria da aurkezten diren eskaera guztiei erantzuteko betebeharrari eta administrazioaren isiltasunaren ondorioei buruz dauden legezko ezarpenak gogora ekartzea (30/1992 Legearen 42 eta 43. artikulua). Udalak ebazpena eman behar zuen, eta betebeharraren ordez ezin da konpromiso bat hartzea egin.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

14/2008 GOMENDIOA, uztailaren 4koa, Ortuellako Udalarari egina

Interesdunari udal erroldan izena eman diezaiola.

